



# EIDER

Ikusi daigun zer esan gure deuskun EIDER izenak. Berez Islandia lurraldean bizi dan ata baten izena da. Baña askotan jasoten dan lez izen ori arean aldatuz “edredoi “ berbeagaz ezetuten dogu. Eta da neguko otza kentzeko osatuten dauen jantzia. Batez be oian estalki berogarri moduan erabilten dana.

Dalako “edredoi” ata nordikoaren lumatxa bigunegaz betetako sakel edo boltsakaz egiten da eta berotasun neurtuan irauten dauena. Izan be udabarriri millaka ata “eiderrak” agertuten dira Islandiako lur otzetan maitasun dantza eginda gero legorreko belardietan errute ostean arrautzek berotuteko abi gozoak atonduz beraien lumatxagaz. Lumatxa ori da baimena daben islandiarrak abian jarritako ata amaren azpitik eskuratuten dabena, belar agorraz ordezkatu ta normaltsunez bero lanean jarrai dagien. Lumatxa bitxi preziatua batu ostean munduaren zear saltzen dabe negurako edredoiak egiteko.

Lenago eider atak askotxu baziran ainbat lurraldetan gaurko egunez sano gitxitu dira, Islandian izan ezik. Egia esateko islandiarrak ondo zaintzen dituzte, egazti bereziok erriaren onerako diralako. Txalogarriak olan jokatuten daben erritarrak. Alegin gitxigaz be asko egin leikela adieraziz mundu guztira izen ona ta mesedea zabalduz.

Autortu bear dogu jatorrizko edredoiak galestiak izanaz, malla apalagoan osatuten diranak be aurki daitekezala benetako lumatxaren antzekoa erabilliz. Olangoak, akrilez edo artifizalezko gaia daroadie berotasunean eta osasun arloan kalitate obenetakoak ez izan arren.

Neguan beti be ondo dator, beroari bideak zabaldutea.